

opusdei.org

Uxueko Ama Birjina Torreciudadera joango da erromes

Uxue izena Ama Birjina zegoen
kobazulotik sartu-irten zebilen
usotik letorke

2004 Abu 26

Nafarroako Unibertsitateko
Graduatu Elkarteak bultzatu du
Uxueko Ama Birjinaren
Torreciudadarako erromesaldia.
Urriaren 16an izanen da,
arrosarioaren hilearen barruan, eta
Joan Paulo II.ak ezarritako

Eukaristiaren Urtea Eliza osoan
hasiko den hilean bertan.

Bóregan (Zintruenigo, 1951)
eskultoreak egindako Uxueko Ama
Birjinaren kopia eramango dute
erromesek. Irudia prozesioan
sartuko da Torreciudadeko
santutegian, eta erromes-mezan zein
Aldareko Jaunaren bedeinkazioaren
bitartean aldare-aldean izanen da.
Arrosarioa errezatzean, aldiz,
bertako lautadara aterako da berriro
ere prozesioan.

Uxueko Ama Birjinari debozioa

Nafarroako santutegien artean, Uxue
leku geografiko egokian dago
(Nafarroako Erdialdea) eta inguruko
herrialdeek debozio xamurra diote
Uxueko Andre Mariari. Bereziak
dira, gainera, santutegi-
gotorlekuaren artea, historia eta
ohiko erromesaldiak.

Izen honen jatorria Errekonkistaren garaietan kokatzen da (X.-XI. mendeak). Kondairak dioenez, lurralde hau musulmanen eskuetan zegoela, Ama Birjina kobazulo batean ezkutaturik zegoen eta egun batean artzain bati agertu zitzaion, leku berean santutegi bat eraiki zutelarik. Uxue izena kobazulotik sartu-irten zebilen usotik letorke.

Uxuen beneratzen den irudia erromanikoa da; Carlos II.ak (XIII. mendea) zilarreztatzeke agindu zuen eta ordutik ezaguna da Nafarroako Erregeak erromes joan izan direla santutegi horretara.

Uxuerako Erromesaldia Ama Birjinarentzako debozio eta penitentzia agerpenik sustraituenetako bat dugu Nafarroan.

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ama Birjinak

Era berean Puyko (Lizarra) Ama Birjinaren anaidia iazko urrian Torreciudadera joan zen erromes. Herri bateko zaindariaren kopia bat Torreciudadera eramateko ohitura 1984an hasi zen, santutegiaren IX. urteurrena ospatu zenean. Orain, milaka erromes abian jartzen duen ohitura bihurtu da, bai bere herriko irudia eramateko, bai aitorlekuen kaperan dauden irudiak ikusteko. Hogei urte igaro ondoren, bost kontinenteetako berrehun taila baino gehiago daude; horien artean, EAE eta Nafarroako zaindari garrantzitsuenetako batzuk daude: Zumarragako Antiguako Ama, 1997an iritsi zen; Begoñako Andre Maria, 2000ko jubileuan; Los Arcosko Ama Birjina, 2001ean; Estibalizko Ama Birjina, 2001eko urrian; eta Lizarrako Puyko A. B., 2003ko urrian.

Arantzazuko Ama, Torreciudadeko santutegia zabaldu zeneko 25 urteurreneko egun handian joan zen.

Ospakizuna 2000ko uztailan izan zen, Javier Echevarria Jn. buru zela. Donostiako Orfeoiak Aita Madinaren Gure Aita eta Maite Aranzabalen organo jole gipuzkoarraren Torreciudadeko Ave Maria kantatu zituen, besteak beste. Ama Birjinarekin Elustondo Aita zena joan zen, baita santutegi gipuzkoarreko Parroki-Batzarreko zenbait kide.

2001ko maiatzean Begoñako Ama Birjinaren kopia bat joan zen, Begoñako Andre Mariaren Kofradiak antolatuta eta Telmo Zarra buru zutela. Ekitaldian Blazquez gotzainak idatzitako eskutitz bat irakurri zen. Estibalizko Ama Birjina, Mugika Aita, bertako santutegiko priorea, lagun zuela joan zen; ez zen falta Arabako familia askoren maitasuna.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/uxueko-ama-birjina-
torre-ciudadera-joango-da-erromes/](https://opusdei.org/eu-es/article/uxueko-ama-birjina-torre-ciudadera-joango-da-erromes/)
(2026 Ots 21)